



BENETAKO Kopia, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegotza.araba.eus/consorciourbide/validacionDoc/?entidad=URBIDE_CA
10144708b0220c0ac0e07ea122080b30q



URBIDE - ARABAKO UR PARTZUERGOA - CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

LARRAZUBIKO HERRIGUNEAN UR-HORNIDURA ARAUTZEKO MURRIZKETAK EZARRI IZANAREN JAKINARAZPENA. Lehorte hidrologikoaren ondorioz, udan ur gehiago kontsumitzeagatik eta zisterna-kamioekin ura hartu behar izanagatik larriagotu dena, Larrazubiko herrigunean ur-erreserbak kaltetuta ikusi dira. Hori dela eta, neurri jakin batzuk hartu behar dira herritarrei ur-hornidura bermatu ahal izateko. Urbideren hornidura-zerbitzua emateko ordenantza teknikoaren 12. artikulua ezartzen duenari jarraiki, partzuergoak mugak aplikatu ahal izango ditu horniduran emari-eskasiak edo tratamendu-zailtasunek hala gomendatzen dutenean. Hori guztiagatik, eta besterik agindu arte, honako hau egingo da: 1. Edateko ura hornitzeko eskuragarri dauden baliabide hidrikoen koiunturazko eskasiagatik, alerta-egoera deklaratzeko, ondoren adierazten den eremuetan. 2. Besterik agindu arte, hornidura-saretik eratorritako uraren erabilera hauek debekatzea: a. Ura lorategiak edo baratze publiko zein pribatuak ureztatzeko erabiltzea. b. Ura bideak, kaleak edo espaloiak, publikoak zein pribatuak, edo bide publiko edo pribatuetan instalatutako beste edozein elementu ureztatzeko erabiltzea. c. Ura ibilgailu partikularrak garbitzeko erabiltzea, jarduera horretarako berariaz baimendutako establezimenduak izan ezik. d. Iturrietan zein instalazioetan ura helburu apaingarri hutsetarako erabiltzea.	COMUNICACIÓN DE ESTABLECIMIENTO DE RESTRICCIONES PARA LA REGULACIÓN DEL ABASTECIMIENTO DE AGUA EN EL NÚCLEO URBANO DE PUENTELARRÁ. Como consecuencia de la situación de sequía hidrológica, agravada por un mayor consumo durante el periodo estival y la necesidad del suministro de agua con camiones cisterna, se ven afectadas las reservas de agua en el núcleo urbano de Puentelarrá, lo que hace necesario adoptar determinadas medidas para garantizar el suministro de agua a la población. Según establece el artículo 12 de la ordenanza técnica de prestación del servicio de abastecimiento de Urbide, cuando circunstancias de escasez de caudales o dificultades en el tratamiento así lo aconsejen, el consorcio podrá aplicar restricciones en el suministro. Por lo anterior y hasta nueva orden se procede a: 1. Declarar la situación de alerta por escasez coyuntural de los recursos hídricos disponibles para el abastecimiento de agua potable en el ámbito que se señala. 2. La prohibición, hasta nueva orden, de los siguientes usos del agua procedente de la red de abastecimiento: a. El uso de agua cuyo destino sea el riego de jardines o huertas de carácter público o privado. b. El uso de agua cuyo destino sea el riego o baldeo de viales, calles o aceras, tanto públicos como privados, o de cualesquier otros elementos instalados en las vías públicas o privadas. c. El uso de agua para el lavado de vehículos particulares fuera de establecimientos específicamente autorizados para dicha actividad. d. El uso de agua con fines puramente ornamentales en fuentes e instalaciones.
---	---



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: /COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegotiza.araba.eus/consorciourbide/validacionDoc/?entidad=URBIDE_CA
10144708b0220c0ac0e07ea122080b30q



e. Igerileku pribatuak betetzea edo birjartzea. Neurri hauek biztanlegune hauetan aplikatuko dira: Larrazubiko Kontzejoa. Era berean, herritarrek uraren erabileran duten erantzukizuna eta elkartasuna eskatzen da, ura ahalik eta modu eraginkorrean erabiltzeko behar diren neurri guztiekin jarraituz.	e. El llenado o reposición de piscinas privadas. Estas medidas son de aplicación en los núcleos de población de: Concejo de Puentelarrá. Asimismo, se apela a la responsabilidad y solidaridad de los vecinos y vecinas en el uso del agua, continuando con todas las medidas necesarias encaminadas a la utilización más eficiente posible de la misma.
--	--

Ribabellosan sinaduraren datan
En Ribabellosa a fecha de firma.
Lehendakaria/Presidente, JULEN IBARROLA GOBANTES